

Amurriotik Donostiara, ibilbide osoa aurkeztu dute.



Amurriok emango dio hasiera 22. Korrikari. Amurrio Arabako ipar-mendebaldean dago, Aiaraldea eskualdean. Araban populazio handiena duten herrien artean hirugarrena da (Gasteizen eta Laudioaren ondoren). Gasteiztik 40 bat kilometrora dago, eta Bilbotik 30 bat km-ra. Martxoaren 31n hasita, hamaika egunez, etenik gabe, eguzkipean zein ilargipean, Euskal Herri osoa zeharkatuko du KORRIKAK: Nerbioi ibaiaren haranetik, Durango aldera; Anbotoko Damaren babesetik, Gasteiza; eta handik, Arabako Lautadara; patataren erreinutik, Euskal Herriko hiriburu historikora; Iruñetik, gure herriko basamortura¹; Erregeren Berdeatik, gure herriko birikara²; Pirinioetatik, mendi, arroila³ eta historiaz betetako lurraldera, Donibane Garazira eta Maulera. Eta, Mauletik, berriro ere Nafarroara; Baigorritik abiatuta, Euskal Herriko barnealdea igaroko du: mendi, larre zein lautada, Arabako mahastietaraino; eta, ardoaren lurraldetik pasatu ondoren, metropolira iritsiko da, "Bilbo Handi"ra.

Itsasoari begira pasatuko da KORRIKA Bizkaitik Gipuzkoara, eta, handik, hondartza eta itsaslabarrei⁴ agur esanda, barnealdera joango da berriro, Baztan aldera. *Sorgin* esan zieten emakume ausarten lurraldean, Sarako eta Zugarramurdiko leize ikusgarriak atzean utzita, Baionara iritsiko da, Kantauri itsasoari ku-ku egiteko. Eta, horrela, ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, helmugaraino, Donostiaraino, Txillardegiren sorlekuraino⁵. Apirilaren 10ean, milaka euskaltzalek Donostiako kaleak hartuko ditugu, hitzez ekiteko prest!

KORRIKAREN APPA

Aurten ere, KORRIKARI egunez egun jarraitu ahal izateko aplikazioa guztien eskura jarriko du AEK-k. Aplikazio horren bidez, hainbat informazio eskuratu ahal izango da: ibilbide osoaren mapa, lasterketa une oro non dagoen, edozein lekutara noiz helduko den... Ibilbideari buruzko informazioaz gain, KORRIKARI buruzko azken orduko jakinarazpenak ere jaso ahal izango dira.

PETOAK SALGAI

KORRIKA dotore egiteko, dagoeneko salgai daude petoak: hiriburuetako dendetan, *online*, eta, hemendik aurrera, baita euskaltegietan ere.

Hiztegitxoa:

1. basamortua: desierto; *désert*
2. birika: pulmón; *poumon*
3. arroil: foz, cañón; *canyon, gorge*
4. itsaslabar: acantilado; *falaise*
5. sorleku: lugar de nacimiento; *lieu de naissance*

NONDIK NORA JOANGO DA? ZEIN ORDUTAN PASATUKO DA?

Martxoak 31

Amurrio 16:30
Balmaseda 19:23
Ugao 23:51

Apirilak 1

Durango 05:11
Legutio 14:59
Gasteiz 17:07

Apirilak 2

Agurain 00:05
Iruñea 09:18
Tafalla 20:57

Apirilak 3

Cárcar 01:39
Tutera 11:43
Zangoza 22:59

Apirilak 4

Irunberri 00:37
Donibane Garazi 14:58
Maule-Lexarre 21:26

Apirilak 5

Baigorri 03:50
Lekunberri 13:32
Lizarra 20:53

Apirilak 6

Kanpezu 00:37
Igorre 15:12
Bilbo 19:37

Apirilak 7

Barakaldo 00:00
Bermeo 13:33
Ondarroa 22:39

Apirilak 8


Zumaia 03:08
Andoain 08:48
Beasain 19:39

Apirilak 9

Doneztebe 03:42
Kanbo 12:52
Baiona 17:29

Apirilak 10


Irun 00:54
Hernani 06:49
Donostia 07:36



1. Kokatu leku hauek mapan:



1. Abadia jauregia (Hendaia)

2. Xabierko gaztelua
(Zangozako merindadean)


3. Gaztelu Zaharra (Maule-Lexarre)

4. Gaztelugatxe
(Bakiotik Bermeorako bidean)5. Ulibarri-Ganboako urtegia
(Legutio ondoan)

6. Itzurun hondartza (Zumaia)

7. Erregeren Bardea
(Tuteratik Cadreitarako bidean)

8. Arnagako lorategiak (Kanbo)



9. Sorginetxe trikuharria (Agurain)

2. Artikulua irakurri, eta mapan begiratu ondoren, erantzun honako galdera honi: zein egunetan eta ordutan pasatuko da KORRIKA (gutxi gorabehera) irudietako leku hauen ondotik? Erantzun adibidean bezala.



Adibidea: Senpereko aintzira. Senpere 8:25 (apirilak 9)
(Senpereko aintziraren ondotik) apirilaren 9an pasatuko da, goizeko zortzi eta erdiak aldera.

1. irudia:
2. irudia:
3. irudia:
4. irudia:
5. irudia:
6. irudia:
7. irudia:
8. irudia:
9. irudia:

ERANTZUN ZUZENAK:

1. ARIKETA:

1-i; 2-d; 3-e; 4-f; 5-a; 6-g; 7-c; 8-h; 9-b

2. ARIKETA:

Aukera bat baino gehiago dago. Hemen, zenbait adibide zuzen jarri dizkizuegu.

1. Abadia gaztelua > Irun 00:54 (apirilak 10); maparen arabera, Hendaiatik pasatuko da Irunera.

Apirilaren 10ean, goizeko ordu bata baino lehen

2. Xabierko Gaztelua > Zangoza 22:59 (apirilak 3)

Apirilaren 3an, gaueko hamaikak aldera

3. Gaztelu Zaharra > Maule-Lexarre 21:26 (apirilak 4)

Apirilaren 4an, gaueko bederatzita eta erdiak aldera.

4. Gaztelugatxe > Bermeo 13:33 (apirilak 7); Bakiotik Bermeorako bidean dago (Bermeo baino lehen).

Apirilaren 7an, eguerdiko ordu bata aldera / eguerdiko ordu bat eta erdiak baino lehen.

5. Ulibarri-Ganboako urtegia > Legutio 14:59 (apirilak 1)

Apirilaren 1ean, arratsaldeko hirurak aldera.

6. Zumaia hondartza, Itzurun > Zumaia 03:08 (apirilak 8)

Apirilaren 8an, gaueko hirurak aldera.

7. Errege Bardea > Tütera 11:43 (apirilak 3)

Apirilaren 3an, eguerdi aldera / 12ak pasatuta

8. Arnagako lorategiak > Kanbo 12:52 (apirilak 9)

Apirilaren 9an, eguerdiko ordu bata aldera.

9. Sorginetxe > Agurain 00:05 (apirilak 2)

Apirilaren 2an, gaueko hamabiak aldera

Orduak nola esaten diren ikusteko, jo hona:

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&Itemid=1161&task=bilaketa&lang=eu&id=1187&highlight=ZEIN+ORDUTAN

IBILBIDEA

► KORRIKA aplikazioa deskargatzeko, jo hona:

iPhone: <https://apps.apple.com/es/app/korrika/id594215660>

Android: <https://play.google.com/store/apps/details?id=eu.aking.korrika>

► Ibilbidea Interneten ikusteko:

<https://korrika.eus/eu/ibilbidea>

MINTZAMENA

- **Prestatu gaia tutore edo ikaskideei azaltzeko:** ezagutzen dituzu irudietan agertu diren lekuak? Azken edizioan egin al zenuen KORRIKA? Nondik nora? Eta aurten, nondik nora joateko asmoa daukazu?